


**2019-2020
ikasturteko udal
ikastaroetan
izena emoteko
epea zabalik**

12. orrialdea

Gorbeia Suzien Kilometro Bertikala eta Gorbeia Suzien Ternua Lasterketea

Mendi lasterketa garrantzitsu bi hartuko ditu Zeanurik urri lehenengoaren 27an eta 29an; Gorbeia Suzien Kilometro Bertikala eta Gorbeia Suzien Ternua Lasterketea. Umeentzako Lasterketea, zapatuan, hilak 28, izango da. Herrian jai giroa izango da nagusi astegoiaren osoan. **10. orrialdea**



**PR-BI 56
Lemoatxa 1937
ibilbidea 24
orduz egiteko
erronka**

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

324

2019ko urri lehenengoaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.org

Hogei urte bete dira Laura hil ebenetik

Laura Orue Zeberioko gaztea hilda aurkitu ebenetik hogei urte bete ziran urri lehenengoaren 5ean. Eta hogei urte betetean, hilketak preskribidu egiten dabe; hau da, erantzukizun penala desagertzen da. Nork hil eban Laura Orue ar-

gitu barik geratu da. Ez da egon justiziarik Laurarentzat.

Blanca Estrella Ruiz, justizia eske familiarri lagunduten egon dan Clara Campoamor alkarteko presidenteagaz egin dau berba BEGITUk. **8. eta 9. orrialdeak**



Dimetal jaialdiko ordutegi eta lekuak

Barikuan, hilak 27, hasiko dira lehenengo taldeak jotzen. The Eleventh Plague izango da lehena, Koban. Eta zapatu gaueko 04:30ean amaituko dau bere emonaldia Insaniam taldeak Lemmy-n. Bien bitartean beste 21 taldek joko dabe. Lau eszenaleku egongo dira: Koba, Abaroa Aretoan; Mari, frontoi txikian, eta Lemmy eta Doro karpapean.

Bosgarren edizino honetan be, metalaren estilo ugari gaz gozatzeko aukerea izango dabe zaleak, eta gustuen arabera aukeraketea egin ahal izateko, talde bakoitxak ze ordutan eta non joko dauan emon dabe jakitera antolatzaileak. Familian egiteko beste ekintza ugari be antolatu ditue.

Dima baltzez jantziko da urri lehenengoaren 27 eta 28an metal musikearen topaleku garrantzitsu izango dan Dimetal jaialdirako. **13. orrialdea**



ARRATIA

Arratia errekearen ertzetatik, Zeanuritik Bediara ibilaldia

Arratiako Ibaiertzetatik X. Martxea antolatu dau Arratiako Udalen Mankomunitateak urri lehenengoaren 22rako, Mobikortasun Iraunkorraren Europako Astea ospatuteko. Helburua, beste batzuen artean, haraneko zidorrak eta bideak berreskuratzea da, baita auzoen eta herrien arteko oinezkoen konexinoa be. Ibilbidea 20 bat kilometro ditu. Parte hartzeako ez dago izena emon beharrik eta herrietatik urtekerara eta helmugatik herrietara autobusak egongo dira doban. **6. orrialdea**



IGORRE

"Euskeraz gara" leloagaz ospatuko da Inbiu Eguna hilaren 21ean

Bezperan hasiko dira ospakizunak, Igorre kantari, herritarren kantu kalejireagaz, eta zapatuan, egun osoan egongo dira euskerazko jarduerak, edade guztietako igorretarrak egin dagiezan: hormairudia margotu, kalejirea, bazkaria, kantaldia eta erromeria, hain zuzen be.

Aurreko egunetan, esakera zahar batzuk agertuko dira zebrabideetan eta horreen inguruko lehiaketa bat be prestatu dabe Igorreko Euskera Planean. **5. orrialdea**

IRAILAK 21
zapatua

11:00 "Euskeraz gara" Horma irudi margoketa Kultur etxeko ateetan

12:00 EinCOgaz kalejira Aizoa tabernan hasita

15:00 Bazkaria Kultur etxeko plazan

MENUA:
Helduak 14€: Marmitakoa, solomoa piperrakaz, tarta izozkiegaz, ardoak, kafea...

12 urtera bitartekoak 9€: Makarroiak, solomoa patataz, izozkia.

Ostean EinGo taldeagaz kantaldia

18:30 Jokaldi AMPen eskutik

Bitartean Txokolata eta esakeren zozketa

ARTEA

MerkArtea, azokea, bertsoak eta musikea

MerkArtea baserriko produktuen eta artisautza azokea urri lehenengoaren 21ean izango da Artea. Betiko moduan, baserriko produkturik onenak erosteko aukerea izateaz gainera, nekazal giroko jai honek euskerazko musika eta aisialdia ekarriko ditu herriko kaleetara, herriko jaien jarrapen modura.

Azokea goizeko 10:00etatik 15:00etara izango da eta bitartean, EuskOrleans Dixie Band txarangea, Uxe Alberdi eta Sebastian Lizasoren bertsoak, giza probak eta umeentzako puzgarriak eta artisautza tailerrak egongo dira.

Iluntzean, Korrontzi taldeak ikuskizuna eskainiko dau plazan. Egunari amaierara Gora Herria taldeagaz egingo dan erromeriak emongo deutso. **5. orrialdea**

Literatura txokoa

GERRAK EZ DU EMAKUME AURPEGIRIK

II. Mundu Gerran, miloe bat andra joan zan frontera Armada Gorriaren lerroetan. Euretako asko zirujauak, erizainak, telefonistak, sukaldariak eta erropa garbitzaileak izan ziran. Baina izan ziran be frankotiratzaileak, tankistak, pilotuak, artilleriako soldaduak, partianoak, irriati operatzaileak, zulatzaileak, minatzaileak... Sakrifizio itzelak egin ebezan gerra frontierik gogorenean (Sobietar Batasunak 27 miloe hildako izan ebazan militar eta zibilen artean gerra haretan), baina ezinbestekoak izateari itxi eutsienez, ahaztu egin zan euren ekarpena eta euretako askok bazterketa soziala jasan eben.

Andra adoretzu hareek ahanzturatik erreskatetako asmoagaz Svetlana Aleksievitx-ek liburu hau idaz-

teari ekin eutsan 1978an. Orduan, euren etxeetan agertzen hasi zan, grabagailua besapean. Holan ezetu ebazan Vasilevna Korzh aiztak, Zalditeria Kosakoaren erizain ausartak; eta Valentina Pavlovna Txudaieva, alemaniarrek hildako aita mendekatzeko, aire-erasoen aurkako bateria baten komandante egin zan siberiarra; eta Maria Ivanovna Morozova 75 alemaniar hil ebazan frankotiratzaileak; eta minak desaktibetan jardun zan Appolina Nikonovna Litskevix-Bairak tenienteordea; eta Maria Timofeievna Savitskaia-Radukevix, titiko umea aldean, partianoentzat mezulari ibili zana alemaniarrek okupatuko eremuan; eta Maria Petrovna Smirnova, 481 zauritu salbau ebazan osasun-langilea, gudu zelaitik, tiro

eta ez tandem artean, banan-banan aterata; eta, Sofia Adamovna Kuntsevix, Berlineraino iritsi, eta Reichstag-eko hormetan "Ni, Sofia Kuntsevix, gerra hiltzera etorri naz honaino" idatzi eban sarjentu-burua... Eta beste asko eta asko.

Gudari izandako hareek bihotza zabaldu eutsien istorio lazgarriak, hunkigarriak eta batzuetan barrengarriak kontauz: zelan joan ziran gerrara, oindino 17-18 urteko neskak zirala, ilusinoagaz eta xalotasunez, eta zelan bueltau ziran ez ezetuteko moduan aldatuta; zein gogorra dan beste persona bat hiltzea; zelan egin jakien antojugarria gorri kolorea, horrenbeste odol ikusi eta gero; zelan erretzen zan maitasuna lubakietan; zelan gorrotatzen eben etsaia eta zelan errukitzen ziran berataz; zelan pozten ziran andrazkoen barruko erropak lortzean, hilabeteetan gizonezkoen kantzontziloak jantzita ibili ostean, eta zelango ahalegina egin eben, infernu haretan, andra eta persona izaten jarraituteko. Azken baten,

Svetlana Aleksievitx

Itzultzailea: Iker Sancho Insausti

Gerrak ez du emakume aurpegirik

Elkar argitaletxea

292 orrialde



beste gerra bat kontau eutsien, historia liburuetan agertzen ez dana.

Ikuspegi humanista hau ez zan izan agintari sobietarren gustukoa. Bere liburua irakurrita inork ez ebalaz gerrara joan gurako arpegiratu egin eutsan zentsoreak Aleksievitx-eri; aberriak heroiak eta ideal handiak behar ebazan, ez persona txikiak. Halanda be, Gorbatxov-ek Sobietar Batasunean bultzatutako irekidurari ezker, liburua 1984an argitaratu zan... sano mutilauta baina. Horregaitik, 2002 eta 2004 bitartean Aleksievitx-ek berriatzi egin eban liburua, zentsurak (eta autozentsurak) kendutakoak liburuan barriro sartuz. Eta lana bere osotasunean ikusita, baietz esan beharra dago, zentsoreak sakonean errazoia eukala, liburu hau irakurrita, gerrea zure indar guztiakaz gorrotatuko dozulako, eta personak maite.

Svetlana Aleksievitx-ek Literaturako Nobel Saria irabazi eban 2015ean.

Ekaitz Zabala Iturbe

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urri lehenengoaren 16tik 22ra
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 23tik 29ra
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri lehen. 30etik urri bi. 6ra
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Gometza Ana. Francisco Kortabaria 2. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 38 50 14
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51

Gorbeialde Irratia
94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioratza
94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55
Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.
Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.
Orduro: 05:45etik 21:45era.
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao
Lanegun eta zapatuetan:
Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
* Basauriraino (Ariz) heltzean da.
Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio
Lanegun eta zapatuetan:
Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40.
Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao
Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00, 16:00.
* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea
Lanegun eta zapatuetan:
Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.
Basauritik (Ariz): 12:45.
* Igorreko Instituturaino heltzean dira.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga
Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri
Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.
Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefona: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Inigo Iruarizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Inigo Iruarizaga.
Publizidadea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Torontile Serigrafia Artistikoari erantzuna

Garagarriaren 30ean, Torontile Serigrafia Artistikoak Arteko udal-
txean aurkeztutako idatzia dala eta,
hurrengo argitu gura geunke:

-Udaletxearen aldetik, Torontile Serigrafia Artistikoaren arduradunakaz telefonoz harremanetan jartzeko ahaleginak egin genduzan baten baino gehiagotan, udaletxean Torontilek itxitako telefono kontaktu zenbakira deituz. Nahiz eta Torontilek emondako telefono zenbakia izan, erantzuna, telefono okerrera deitu genduala izan zan eta hurrengo deietan, harremanetan jartzeko ahalegin bardinean, telefonoa itzalita agertu izan zan beti. Baten baino gehiagotan bertaratu ginan ahalegin bardinagaz, baina ez genduan inor aurkitu. Ahalegin honeek guztiak, azkenean, eskutitz bitartez komunikatzea eroan ginduzan, ez genduan-eta beste biderik lortu. Eskutitzean modu ofiziala erabili genduan, ez inongo mehatxurik.

-Euskera eta gaztelania udaletxe honetan komunikazio hizkuntzak dira, eta hizkuntzaren bateri lehentasuna emoten bajako, euskereari da (ikusit besterik ez dago eguneroko lana eta komunikazioak zelan burutzen diran).

-Oingo udal taldeak, Mataderoa deritxan eraikin munizipalean, gazteentzako proiektua egiteko gogo

daukagu, oin 3 hilabete eskas aurkeztu zan udal hauteskundeetarako programan azaldu genduan moduan. -Proiektua argia da: eraikina, Udalaren babesagaz, 13-20 urte bitarteko gazteak aisialdirako leku egoki bat izatea. Hau zehazteko proiektua egin behar dogu eta horretarako eraikinera sartzea ezinbestekoa da; egoera ikusi eta gero egin beharreko lanak egiteko lokala hutsik egon behar da.

-Ez dogu zuon egoera legala dala ikusten. Udalaren eraikin baten lanean zagoze zuon proiektua egiten (soziala dala aitatu arren) ezelango udal baimenik izan barik. Berbazko akordioak personeren arteko balioa daukie, baina instituzinoen artean, edo persona eta instituzinoen artean, balioka daukana, idatzizko akordioa da. Gainera, eraikinaren homidura basikoa, Udalak ordaintzen dau, bertan aktibidade pribadu bat burutzeko inongo baimenik izan barik.

-Gazte Asanbladeak ez dauka eraikinaren erabilerearen azken berbea. Bere momentuan, gazteen esku, gazteak erabilteko modu baterako itxi zan, baina zuon idatzian esaten dozuen moduan, urte askoz ez eben erabilten eta abandonauta geratu zan. Gazte Asanbladeak ez dauka ezelango autoridaderik bertan, eraikina Udalarena da eta.

-Udalaren partetik akordiorako prest gagoz hutsituteko epeak egokitu behar badira edo beste edozeri buruz gauzak errazteko. Baina argi izanik eraikina Udalarena dala, eta bertan dagoana eta egiten danari buruz ebazten dauala.

-Gura izan ezkerero, prest gagoz zuokaz batzarra egiteko. Horreta-

rako udaletxera deitzea besterik ez daukazue, zuon egoera ikusi eta urtenbide egokiena bilatzeko.

ARTEAKO UDALA

Zelango egurra, halango ezpala

248 euskal preso politiko, %80a etxetik 400 km baino gehiagora, gaixorik dagozanak behar daben tratamentua jaso barik, badagoz 70 urtetik gorakoak be, isolatuta urteak darozenak, gehienak bigarren gradua ukatuta.

Latza da oindino egoera, mingarria, bidebakoa, oinarizko eskubideak ukatzen dauzana. Hori pentsetan dogu urtaileko manifan Bilbon eta Baionan manifestau ginan 100.000 personak, eta gehiagok. Hori pentsau egiten dogu kasurik onenean, sentidu besteetan eta, txarrenean, bizi eta sufridu. Hori pentsetan dau euskal jendarte zati handienak, baita Arteko heritarron gehiengoak be. Baina antza PNVri bost!

Ez alkartasunik, ez begirunerik, ez lotsarik. Heriko hauteskundeak irabazi eta eskuetan makila hartu orduko kendu dabe balkoitik presoen eskubideen denfensea aldarrikatuten eban banderolea. Kendu egin deuskue. Ostu.

Hurrengo egunetan etorri ziran banderola morea eta horia kentzeako aginduak. Agian feminismoak molestau egiten dau, igual errefujaduak ez dira ondo etorriak, igual geranioen aldeko militanteak izatea gura... eurak argitu beharreko kontuak. Gure alkartasuna beste burruka batzuren defentsan zabizien talde eta ekintzaileoi! Ez gara isilduko.

Zoritxarrez oingo PNVko hautetsiak ordukoan bidea segiduten dabe: euskal jendarte zabalaren eskubideak defendidu beharrean gitxiengo burgesarenak defendiduten, gatazka ez konponduteko ahaleginak egiten, irabazle-galtzaile dikotomia elikatuten... Zelango egurra, halango ezpala.

Gu be izan ziranen ondorengoak garanez ez dogu lehenengoan etsiko. Ez dogu etsiko, azken preso, errefujadu eta deportauak etxean izan arte. Alkartasuna adierazoko dogu, nahiz eta Udalak geranio golpez isildu gura. Bada garaia, presoak kalera!

ARTEAN GURE DOGUZ TALDEA

ERETXIA



IGOR ESTANKONA
Idazlea

Lopategiren miraria Arratiako Ikastolan

! Zuk bezainbeste bertso ez du inork kanta/guk botatako bertso bakoitza zurea ere bada ta" esan eutsan Etxahun Lekue Jon Lopategiren hiltzari Ariatzako eleizan, zenbat hil joan dira honezkero, zezeiletik?

Gu be Muxikara joatekoak izan ginan agur esateko baina etxeko txikerra gaixotu jakun bezperan, eta ezin bertaratu. Egia esan, jentzearen erdian esango geuntsan agur, eta ohore, Lopari, eta igual hobeto holan, beragaz egoten ginanean bakarka egoten ginan-eta ia. Edo asko jota Zubiategaz. Betzuenegaz. Yurrebasogaz. Anaia-gaz. Menikagaz. Izagaz. Olabarrigaz. Landajogaz. Amondarainegaz. Lopategiren intimidadeak halakoxe ugariak ziran.

Baltzak esaten eustan: Zubiaterean moduan kantau behar dok, artez, altu!

Eta Ford Orioneko bidaiariok izaten ginan hau edo ha, baina Intxausti fijoja zan. Intxaustigaz gustetan jakon edonora joatea. Kepa zan nire eretxian bere Azpillaga maitearen irudi eta kideko arima. Baina nire teoria baino ez da hori.

Behin Arratiako Ikastolako gela baten gengoza bertso-praktikan, gu arbelari lepoa emonda eta bera erdi lo aulki txiki-txiki baten, miraria gertatu zan.

Ordura arte bertsoak egiten nebazan hasibarrien modura, eregi osorik eta buruz kantau. Neketsua zan ze goitik behera hausnartu behar zan lehenengo

azkena, gero oinak eta ahal bazan diskurso osoa be bai. Halakoetan normalena zan bertsoa gogoan hartu ezin eta jaustea, eta zurian geratzea. Baina ausardia nahikorik bildu barik nengoan ni artean bat-batekorako.

Halako baten baina, Arratiako Ikastolako gela baten gengoza bertso-praktikan, gu arbelari lepoa emonda eta bera erdi lo aulki txiki-txiki batean, begiak zabaldu ebazan ezustean:

-Zuk ikasi dozu bertsoetan- esan eustan.

Eta altxa egin zan, eta etxerantza joan ginan.


Ez dakit zer izango zan: kantakera, kadentzia, betelanaren arintasuna... baina nik sentidu egin neban bat-batean ari nintzala, eta berak ni bat-batean ari nintzala. Edo igual horixe, Etxahun Lekue funerealean maisuki definitidu ebana: guk botatako bere beste bertso bat izango zan ha, eta ezetu egingo eban.

-Zuk ikasi dozu bertsoetan. Eta ordutik ahaztu be bai, Jon, baina gauzak ez dira guztiz ahazten. Zuri itxaron eta itxaron ikasi neban bertsoetan, halako baten ate handira eroan ninduzun. Gauzak ez dira ahazten, Jon, berben hoskidetasuna, zure seme-alaba guztion adiskidetasuna.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Biziezin



Uriolak, lurrikarak edo sute handiak, esate baterako, fenomeno sano kaltegarriak dira. Holango zoritxarren baten ostean bizi izaten dan egoeran bizimodua hondatuta geldituten bada biziezina dala esaten jako (bisiésine, ahoskatuta). Berba hau gero eta gitxiago entzuten dogu gure artean. Hona hemen adibide bat: "Gerrea biziezin larria da; holangoren bat ailegauko balitz, gorriak ikusiko geunkez!". Arratia inguruan, "biziezinean egon" esamoldea be badaukagu: biziezinean dagoena, haserre dagoela esan gura dau.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea Auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatutako
Batzen jarduera

MONDRAGON

LUMATUTEN


**MAITE ARTABE
URKIRI**
Margarita Xirgu

Hil aurretik esan ei eban: grekoak errazoa eukien, ez dago erbesteratutea baino zigor handiagorik. Nik esango neuke erbesteratua eta ahaztua, tragikoago.

Eta uste neban gure ahaztuetako beste bat zala bera; Federico Garcia Lorcak berari esker antzezlanak taularatu ostean, antzezlea izateaz gainera zuzendari eta produktore bezan eta, Federicoentzat ospea eta bera ahaztua, bere sasoiari Margarita la Roja deitzen ebena.

Baina ez, Meridan egin dot topo beragaz ezustean. Begi bistakoa zan bere presentzia: erdi-erdiko plaza bateri bere izena emon deusie eta erromatar teatroaren harri artean bere estatua jarri. Kontua da 1933an berak antzeztu ebalan bertan lehenengoz *Medea*, Azaña presidentea bertan zala, oin hain ospetsua dan antzerki klasikoko festibalean.

Federico hil ebenean Ameriketan egoan antzerki bira baten eta ezin izan eban itzuli, saiatu arren.

Erbestean hil zan, baina ez da ahaztua izan; Montevideoko Arte Dramatikoko eskoleak be bere izena daroa, eta meridatarak beragaz argazkia aterateko aukerea eskaini deuskue. Harro agertuten naz argazkian Margarita la Rojaren ondoan.

Apuntatu zaitut, Xirgu, ahaztu bari, ezkerreko artisten genealogian.

ZERTZEAN


LEIRE AGINAGA
Antartida

Bazen behin batekin hastekoa nintzen, baina ez zen behin izan, ezta birritan, ezta hirutan ere. Batzuentzat behin eta berriz errepikatutako istorioa da hau, eguneroko ogia, su guztien kea, negu ooren gorritasuna. Dardarak.

Hotza sentitu du erraietan, ipar haizeak gogor jo du gaurkoan, kanpoan egun udatiarra ageri den arren. Somatzen ditu mara-mara elur malutak esofagotik erortzen, hezur ahulak are ahulago sentitzen ditu, gogorrago, mugikortasunik gabe, izozten. Esku ahurrera begirada zuzendu eta zuri ikusi ditu, Norvegiako aurora boreala ikusteko eseri zen zorua bezain zuri, solidarioen maskarak bezain zuri, idatzi zizun azken gutuna bezain zuri, zuri bezain zu. Sentimendurik soilena, sinpleena baina zilegitasunik ez duena, barkamenik ez duena, azalpenak zor dituen. Esku bero batek sorbaldatik heldu du, bere buruak eskua bertatik kentzeko diotson arren, ez da hitzak proiektatzeko gai. Esku epela erantzunik jaso ez duela konturatzean, bere betebeharra egin duela suposatuz joan egin da, bere burua segundo horiek izotza apurtuko zutela konbentzitu nahiean.

Eta hor utzi du iceberg bihurtzeko dagoena, geldi, ixilik, hotz. Nostalgatik edateak egarririk kentzen ez diola konturatu da eta itxaropenen pitxerra hartu du, esfortzu handia eginez, eta bere ahotik trago bat sartu da, barruko hotzak izoztu duen tragoa, urdailera iritsi ere egin ez den tragoa. Eguzkia ezkutu egin da, joan da bere amagana, "nahiago nuke ni ere joan ahal izango banintz", pentsatu du protagonistak. Tupustean, malko txiki bat. Laino ilunek estali dute zerua, estali diote larrua. Haize beltzak ekin dio bere bideari eta azala izotz xafla bihurtu du, larrua aldatzeko eskatu nahiean eman ditu fotograma bat edo bi. Garrasiek eztarria zulatzen diote, ez da ezer entzuten. Zure itzulera desio duela esango lizuke orain gardentasun osoz, lehenago inoiz esan ez zizun bezala, lehenago inoiz gertatu ez zitzaion bezala, zure epeltasuna behar duela. Entzutea nahi du, begietatik edaten duen hori aho sabaitik gora irtetea, hitzek banan-banan zure tinpanoa zulatzea, zu madarikatzea, aldi berean maite eta gorrotatzen zaituela xuxurlatzea. Zurekin larrua aldatzeko irrikitan dago, mesedez diotsu, begiekin bada ere.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Esan lei, itsasoa entzun eta brisaren freskurea sentidu daitekela Asier Larreak bialdutako udako iluntze honetako argazkian. Berak, eta argazkiak bialdu dabean guztiak, landetxe baten astegoiena pasetako lehiaketan hartuko dabe parte. Iluntze eta egunsenti gogoangarriak biziteko.

Hamar egun eskas baino ez dira geratzen udako argazkiak BEGITUKO Argazki Lehiaketara bialtzeko. Ez itxi beste momentu baterako eta bialdu zure argazkiak, 3 gehienez, begitu@topagunea.com helbidera.

Zorte on!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarregoa
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbait 101
R.P.S. 31/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elexkolda, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 · 506 854 018

Lehenengo gaurik
social!
Troka
Lehenengo Aizura II

ARTEA

Musikea eta baserria buztartuko ditu MerkArtea azokeak

Goizean, 10:00etatik, 15:00etara egunari izena emoten deusan baserri produktu eta artisautza azokea egongo da.

Erredakzinoa

Azokan EuskOrleans Dixie Bandek ipiniko dau musikea. Taldeak, euskal musikako kantu klasikoak 1920 eta 1930 hamarkadetako New Orleans-eko musika estiloan jotzen dauz. Uxue Alberdi eta Sebastian Lizaso bertsolariak egongo dira eguerdian zehar poteoa girotzeko eta giza proba erakustaldia egongo da Ustrukue Gunean. Umeak puzgarriak eta artisautza tailerragaz eukiko dabe ondo pasetako aukerea.

Baina, azokea amaitutakoan ez da jaia amaituko. Izan be, arrasti partean, Kantu Bat Gara taldea ibiliko da herrian zehar kantetan, Korrontzi taldeak ikuskizuna eskainiko dau plazan eta gauean erromeria

egongo da Gora Herria taldeagaz.

Egitaraua

Urri lehenengoak 21, zapatua
10:00etatik **15:00**etara, MerkArtea, baserriko produktuen eta artisautza azokea.

-EuskOrleans Dixie Band.

-Uxue Alberdi eta Sebastina Lizaso bertsolariakaz poteoa.

12:00etan, giza probak probalekuan.

13:00etan, motozerra erakustaldia.

-Umeentzako puzgarriak eta artisautza tailerra.

18:00etan, Kantu Bat Gara taldeagaz abestu herritik zehar, Ustrukue Gunetik hasita.

21:00etan, Korrontzi taldearen ikuskizuna plazan.

24:00etan, Gora Herria taldeagaz erromeria plazan.



ARRATIA

Euskera ikasteko diru laguntzak eskatzeko epea zabalik

Erredakzinoa

Arratiako eta Zeberrioko Udalak, Bizkaiko edozein euskaltegi homologaduetan euskera ikasten daben ikasleai, diru laguntzak emoten deuseez matrikulea pagetako. Oingo ikasturtean be holan izango da eta hemendik eta urri bigarrenaren erdikaldera arte eskatu daitezke laguntzok udaletxe gehienetan. Ubiden, Bizkaiko edo eta Arabako euskaltegietan ikasteko dira diru laguntza horreek.

Laguntzen diru kopurua aldatu egiten da udal batetik bestera. Holan, Igorren, esate baterako, Uda-

laren diru laguntzea %100ekoa da eta Bedian %50ekoa.



IGORRE

Esakera zaharrak ardatz hartuta, "Euskeraz gara" leloagaz ospatuko da Inbiu Eguna Igorren

Urri lehenengoaren 21ean izango da Igorreko Euskera Planeko Inbiu Eguna, baina bezperatik hasiko dira igorretarrak ospatuten, trikitrixearen soinuagaz eta kantuan.

Erredakzinoa

Inbiu Egunean, kalejirak, hormairudiak, bazkaria eta erromeria, jai giroan egongo dira euskerearen erabilera aldarrikatzeko.

"Euskeraz gara" da aurtengo leloa eta identidadean hizkuntza oinarrikoa dala azpimarratzen dau. Euskerearen erabilera transmisinoak daukan garrantziak jabetuta, Igorreko Euskera Planak Arratian asko erabili izan diran esakera zahar batzuen inguruko jolas bat prestatu dau, belaunaldi barriari horreen transmisino egiteko. Horretarako, Igorreko 14 zebrabidetan, esaera zahar bat idatzi dabe. Urri lehenengoaren 16ko astean, exheetako buzoietan fitxa bat sartu dabe, herrian zehar zabaldutako esakeren gaineko itaunakaz. Fitxa bete eta Inbiu Egunean edo 20a baino lehen Kultur Etxean entregetan dabenen artean opariak zozketatuko dira.

Zebrabidean esakerea topau ostean, itaun batzuk erantzun behar dabez fitxan. Esate baterako, "topau animaliak aitatuten dabezan bi esakerak" "topau jana aitatuten dabezan bi esakerak" edo "topau transmisinoaren garrantziak berba egiten dauan esakerea" langoak. Umeak eskolan landuko dabez esakerak eta ariketa honek jarraipena izango dau abenduaren 3an, Euskerearen Egunean.

Esakerak

Honeek dira Igorreko zebrabideetan topau daikeguzan esakerak:

-*Ekine baragarrie da.*

-*Umean zentzune etxean entzune.*

-*Kanpoeder, etxekalte.*

-*Denporeak agertuko dau edurra mendian.*

-*Zuri mesmeruena pasatu jatzu, heldutorduko usteldu.*

-*Batzuk fama eta beste batzuk lanea.*

-*Kakazarrak ez dau mezidu hainbeste bueltarik.*

-*Gaubeko beharrak egunez agertu.*

-*Bakotzak bere opilari putz.*

-*Barakarroak baino mobimientu gixiagoko dekozu.*

-*Ondo eginen pague, ate-ostean palue.*

-*Ure pasatu eta gero andaparea egin.*

-*Han be txakurrek ortozik.*

-*On bile on bile, bonbile.*



IGORRE

Hasi dira boulderra berreregiteko lanak

Erredakzinoa


Igorreko boulderra berreregiteko lanak hasi ditue urri lehenengoan. Udalak jakitera emon dauanaren arabera, adjudikazinoa, 178.707 eurotako izan da eta obrak egiteko, asegurutik 151.961 euro jaso ditue.

Zut enpresek egingo dauz lanok eta hilabete bitan amaituta egotea espero dau Udalak.

Urte bi luze boulder barik

2017ko maiatzaren 5ean, su batek boulderra kiskali eta kalteak eragin ebazan udaletxean eta

frontoian. Udaletxe eta frontoiko kalteak ez ziran larriak izan, eta segiduan konpondu ebezan, baina boulderra eratsi behar izan eben.



ARRATIA

Urri lehenengoaren 22an izango da Arratiako Ibaiertzetatik X. Martxea**Erredakzioa**

Zeanuriko plazatik, 08:45ean urtengo dira partaideak Zeanuri eta Bedia artean, Arratiako Ibaiertzetatik X. Martxearen 20 kilometroko ibilbidea egiteko. Martxea Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatutako dau Mobikortasun Iraunkorraren Europako Astea ospatuteko. Helburua, beste batzuen artean, haraneko zidorrak eta bideak berreskuratzea da, baita auzoen eta herrien arteko oinezkoen konexioa be.

Martxan parte hartzeako ez da beharrezkoa izango aurretik izena emotea. "Guztira, 20 kilometro dira, edade guztietako pertsonentzako egokiak eta ezelango zailtasunik ez daukien inguruetatik" azaldu deutso BEGITUri Aitor Uriguen AUMko Teknikariak. Igorren, zeozertan eta edateko puntua ipiniko dau antolakuntzeak, parte-hartzaileak indarrak berreskuratzeko.

Antolakuntzeak autobus zerbitzua be eskainiko dau; hain

zuzen be, 08:00retatik aurrera, zerbitzu horrek Bediatik Zeanurira eroango dauz ibilaldian parte hartu gura daberen herri guztietako pertsonak. Martxea amaitu eta Bedian mokadua eskaini ostean, zerbitzua barriro egongo da martxan 14:00etatik aurrera, atzera be herrietara joateko.

Bedian Auto Bako Eguna

Urtero lez, Europako Mobikortasun Iraunkorraren Asteari Auto Bako Eguna emongo deutso amaiera. Bediako Udalak, egunari lotu eta bizikletearen erabilera bultzatzeko ekintzak antolatu ditu. Holan, 10:30ean, euren bizikletea eta kaskoa hartuta, herrian zehar bizikletan ibilteko batuko dira bediazarrak plazan. Ordubete berandago, umeak bizikletan modu seguruan ibiltzea egingo dabe. Atzenik, jardura honeetan parte hartu daberen artean, bizikleta bat zozketatuko da.



ARRATIA

Bizkaiko metalak astebeteko grebea iragarri dau akordiorik lortzean ez badabe**Erredakzioa**

Bagileko eta garagarrileko bost greba egunak ez zan Bizkaiko metalgintzako gatazka konpondu eta udako etenaren ostean, akordioa lortzean ez badabe, mobilizazio gehiago iragarri ditue sindikatuak.

Urri lehenengoaren 10ean, ELAK, LABek, CCOOK, UGTk, ESKk, CGTk, USOk eta CNTk jakitera emon eben prentsurreko baten, urri lehenengoaren 30etik urri bigarrenaren 4ra arteko greba deialdia indarrean dagoala, baita adostutako beste mobilizazioak be. Tartean, Bilboko urri lehenengoaren 21eko manifestazioa.

Sindikatuak eta patronalak 22 bider batu dira Bizkaiko metaleko ituna negoziatuko baina ez dabe akordiorik lortu. Aurrerapausurik ez egitea, sindikatuak patronalari eta patronalak sindikatuari leporatu eutseen.

Lan-ixteak hasi arte, hogeitabi bider bildu egin ziran sindikatu eta patronalak Bizkaiko metaleko ituna negoziatuko, emaitza onik lortu barik. Horregaitik, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak, eskariak bateratu eta mobilizazio agenda bateratu egin eben. Holan, bost greba egunerako deialdia egin eben; maiatzaren 23a izan zan lehen greba eguna eta bagilaren 21a atzena.



Bagilean Bilbon egindako manifestazioa.

Aurreko deialdietako greben erantzuna

Aurtengo maiatzean eta bagilaren 5 greba egun egin ziran eta Arratian grebak %80ko jarraipena izan eban deitzaileen arabera.



ATERPE
Jabetxea

BESTE 10 URTE BAIETZ!
Hamargarren urteurrena

HASIKERAKOAK
Idar eta mendafin txupiloa
Onddo konfitauak arrautza gorringoagaz eta patata kremeagaz
Eskabetxe muskuiluakaz egindako fideua

PLATER NAGUSIAK
Lupia alga pistoagaz
Arkume terrina cous-cousagaz

POSTREA
Intxaur-saltsea Idiazabal bitsagaz

38€ BEZa barne
Errioxako ardo ondua JD, Bizkaiko Txakolina JD, ura barne
Zure menua, kristalagaz inguratutako geure terrazan dastatzeko itzelezko ikuspegiagaz

www.hotelbalnearioareatza.com - info@hotelbalnearioareatza.com - 94 657 27 05



* Abenduaren 31ra arte.
* Erreserba egin behar da aurretik.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARRATIA

Eskualde mailako jarduerak Persona Nagusien Nazinoarteko Egunaren inguruan

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 1ean, Persona Nagusien Nazinoarteko Eguna ospatzen da. Hori dala-eta, hainbat ekintza antolatu ditue, aurten lehenengoz, eskualde mailan. Bizkaiko pensionisten plataformaren antolatetari jagokonean, Arratiako eskualdea, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Zea-nuri eta Zornotzak osotuten dabe.

Eskualde mailako lehenengo ekintza, Areatzako Uparan alkarteak antolatu dau; Upokomakatzara mendi ibilaldia, urri lehenengoaren 17an. Partaideak 10:00etan urtengo dira Areatzako eleizatik, Upokomakatzara igon eta Artea jeitsiko dira Espartatik. Gero, Areatzara itzuli eta bertan kopautxoak izango dabe.

Udalerrri Lagunkoiak programearen aurkezpena

Urri bigarrenaren 3rako Bizi Batzordeak, Udalaren laguntzeagaz, Udalerrri Lagunkoiak programea eta Igorre eta Abadiñoako esperientziak aurkezteko ekimena prestatu dau. Programa honetan,



Bizi Igorre.

eskualdean Igorre bakarrik dago eta "beste herriak jakin dagien eta sartzean animetako" antolatu dabe jardunaldia.

Igorreko Kultur Etxean izango da, arrastiko 18:00etan hasita. Udalaren ondo etorriaren ostean, Abadiñoak azalduko dau bere esperientzia; gero, Igorrek. Ondoren, Bizkaia mailako "talde eragilearen zeregina" azalduko dabe Bizkaiko Adinekoen Kontseiluan dagoan Talde Eragilearen zeregina, hain zuzen be. Atzenik, Bizkaiko Foru Aldundiko teknikari batek programearen aurkezpena egingo dau.

Ondorengo mokautxoak, bururatutakoak modu ez formalean komentetako balioko dau.

Eskualdeko bazkaria Diman

Eskualdeko alkarte guztien bazkariagaz amaituko dira aurtengo Persona Nagusien Nazinoarteko Egunaren inguruko ekimenak. Urri bigarrenaren 5ean izango da Diman eta "180 edo 200 persona inguru" batzea espero dau Javi Zuloaga Bizi Igorre eta Adinekoen Kontseiluko Talde Eragileko partaideak.

BEDIA

Hiru programa abiatuko ditu Udalak jarduera fisikoa sustatzeko

Bediako Udalak, Mugiment izeneko Eusko

Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta udalerrien arteko lankidetzara proiektuan parte hartuko dau.



Proiektuaren aurkezpena.

Erredakzioa

Proiektuaren helburua euskal gizarte aktiboagoa lortzea da eta Bediako Udalak be parte hartuko dau jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako ekintzak bultzatzen dituan ekimen honetan, aktiboak ez diran personak aktibo izaten hasteko neurriak lehentasuna emonez.

Proiektuaren aurkezpena urri lehenengoaren 12an egin zan. Anabe Arruebarrena Bediako Kultura Teknikariak, Jokin Zabala proiektuko orientatzaileak, Gorka Mutuaberría Mugiment proiektuko idazkari teknikoak eta Xanti Perezek Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean azaldu eben ekime-

na. Arratian, Lemoan martxan dago zezeiletik, Oingabiz izenagaz, eta Diman, sarea sortzeako eta herritarren preminak identifiketako beharren dagoz.

Bediako Kultura Teknikariak parte hartzearen errazoiak azaldu ebazan. Bere esanetan, Bedian jente aktibo asko egon arren, beste batzuk bultzadea behar dabe; batez be, 60 urtetik gorako eta 14 eta 21 urte bitarteko hainbatek. Proiektura jotzen dabena, orientatzaile baten laguntzea izango dabe eurentzako egokienak diran jarduera fisikoa egiten hasteko eta prozesuan lagundutako. Konsultan, kasu, persona eta egoera bakoitzaren balorazioa egingo dau orientatzaileak eta plan bat

planteauko dau, jarraipen personalizatuagaz.

Hiru programa

Hezkuntza Fisikoan eta Kirolean lizentziatutako Jokin Zabala da orientatzailea eta orientazio zerbitzua, egunetan emongo dau, 19:30etik 20:30era. Ordua alde aurretik hartzeako 94 631 21 01 telefonora deitu behar da edo mugimentbedia@bedia.biz helbide elektronikora idatzi.

Bedian proiektuak Ondobidean izena hartu dau eta hiru programa ipiniko ditu abian. Lehenengo, Taldea oinez ibili izeneko da. Bedian, jente askori gustetan jakola ibiltea baina ez bakarrik eta pentsau ebela hori aprobetxatu egin behar zala, jente inaktibo aktibo bihurtzeko, azaldu eban Zabala orientatzaileak. Taldea eguaztenetan 19:30ean batuko da. Bertan parte hartzeako izena emon behar da alde aurretik.

Galapan eta luzaketak egiteko programea be ipiniko dabe martxan astean egun bitan. Hirugarren programea 60 urtetik gorakoentzat da, Mantenu eta soinketa, gorputza zaintzeko. Hau be astean bitan izango da.

Alkarrana eta sarea

Programa honek Bedia egiten diran kirolagaz lotutako ekintzak be sustatuko ditu: Kolazinoko Mendi Eguna, Auto Bako Eguna, eta abar, jentearren parte hartzea handiago izan daiten.

Erakundeen arteko kolaborazioa sano inportantea da. Proiektuak Osasun Zentroaren kolaborazioa dauka eta medikuak Ondobidean erabilerara bideratuko ditu gaixoak.

Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta udalak be alkarrana egiten dabe sare bat sortzeako. Oin, orientazio zerbitzua 25 udalerritan dago.

ZURE ZERBITZURA
Avia guztira 192 gasolindegia
Avia Adenor 35 gasolindegia

Explanada Punta Ceballos z/g
48508 Zierbena (Bizkaia)
Tel. +34 944 130 159

Banaketa
Berogailuetarako
gasolio zerbitzua

AVIA

GURE BIHOTZA
Operazio zentroa
Bilboko Portu Autonomoan

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es



LAURA ORUE

Ez da justiziarik egon Laura Oruerentzat

Urri lehenengoaren 5ean bete ziran 20 urte Laura Orue Zeberioko gaztearen gorpua topau ebenetik eta hilketeak preskribidu egin dau. Hiltzailea zigor barik geratuko da. Izan be, aurrerago agertuko balitz be, ez dabe ez epaituko ez zigortuko; delitu batek preskribiduteak "edozein erantzukizun penalen desagertzea" dakar-eta. Nok, non, noz, zergaitik eta zelan hil eban Laura Orue argitu barik geratu da. Ez da egon justiziarik beretzat.



ra lanetik urten zanetik inork ez eban ikusi eta ez dago jakiterik ezta ea tren geralekura heldu ete zan be. Erropea aldatzen egoala etxean be harrapatu eta hil egin eikien, edo Ugaorako bidean, edo beste nonon. Posibilidade guztiak zabalik dagoz; izan be, non eta zergaitik hil eben azalduten dauan zantzurik ez dabe inoz topau, edo behintzat, ez da jakitera emon.

Beste bersino batzuen arabera, Ugaoko geralekura heldu zan eta mutil bategaz berbetan ikusi eban lekuko batek. Kotxea be Ugaoko geralekuan topau zan. Eta hor galtzean da errastua.

Baina Blanca Estrella Ruizek, 2006tik familia ordezkatu dauan Clara Campoamor alkarteko presidentek, pista hori ez dala behar dan moduan ikertu dino. "Lauraren lagun batek, Laura mutil bategaz ikusi eban Ugaoko nasan. Trenera igotean ikusi eban eta agurtu egin eban" dino. Honen arabera, "ildo horretatik tiraka ez zan ikerketa sakonik egin" eta ikertzaileak susmagarriaren "bersinoa sinistu eben eta ez lagunarena".

Non eta noz hil eben Laura ez da erantzun barik geratu dan itaun bakarra. Hiltzailea bakarra edo gehiago izan ete ziran, eta zelan eta zergaitik hil eban be ez dau argitu ikerketeak. Autopsian ez zan eraso edo defenza zantzurik aurkitu eta forenseak itota hil zala ondorioztatu eben, "plastiko bategaz edo". Baina plastikoa be ez da inoz aurkitu.

Ikerketea

1999ko zementiaren 30ean, jatteteko lankide bat atxilotu eben. Egun batzuk beranduago libre itxi eben frogarik ez egoalako.

2002ko apirilean, kasua Bilboko Udaltzaingora pasau zan, eta 2003ko maiatzaren 19an, 31 eta 37 urteko gizona bi

Blanca Estrella Ruiz:
"Niri inork ez deusta
kendu burutik nor
dan hiltzailea"

Laura Orueren familiak, kasua 2003tik artxibauta egoala eta Clara Campoamor alkartera jo eban 2006an laguntza bila, baina ez dabe justiziarik lortu euren senidearentzat. Herriko jentearentzat be golpe handia izan zan. Desagertu zanean, mobilizazio handia egon zan zeberioztarraren bila, baita gorpua topautakoan, justizia eskatzeko be. Eta 20 urteotan ez dabe ahaztu. Zeberioko jaietan urtero ekarten dabe gogora Laura, meza eta lora sorta bategaz.

Zergaitik jo eban familiak Clara Campoamor alkartera?

Ba, akaso, kasu handirik ez eutsiela egiten somatu ebalako. Biktimai beti esaten jakie ez dabela abogadurik behar Fiskaltzak ordezkatzeko dituala eta. Baina gertatu danagaz argi dago familiak argi ikusi ebalako interes handirik ez egoala gertatutakoa argitzeko.

Gurasoak alabearen pribadutasuna zaindu eta hedabideetan ahalik eta gitxien agertzen saiatu dira. Alkarteak egiten eban berba. Alabearentzako justizia egon daiten eginahal guztiak egin dabez, eta egiten dabilz. Baina larri dagoz justiziarik ez dalako egon. Barriro be, justiziak bizkarra emon deutso ez bakarrik familia bateri, baita indarkeriaz hildako neska gazte bateri be.

Herritarren babesa euki dabe, ezta? Jente asko mobilizau zan Lauraren bila eta boluntario batek topau eban gorpua.

Bai. Gustauko litxakit niri gaur egun Blanca Fernandez Ochoa bilatzeko eratu danaren erdia Laura bilatzeko eratu izana. Eta guztiz ados nago bilatu daben moduagaz, baliabide guztiak erabilia. Nik asko estimatzen neban Blanca.

Kasuak preskribidu egin dau hiltzailea nor dan jakin barik, justizia egin barik.

Bai, egin dogu burrukan ikerketa lerro batzuk amaitutzat ez emoteko, baina ez dogu lortu. Nik hiltzailea nor dan susmoa badaukat. Orduan euki neban susmo hori eta oin be susmo bera daukat. Niri inork ez deusta kendu burutik nor dan hiltzailea. Akaso oker nago, baina gurako neuke Auzitegiak frogatu izana oker nagoala. Eta niri Auzitegiak ez deusta ezer frogatu.



Erredakzioa

Zeberioko Saldarain auzoan bizi zan Laura. 1999an 21 urte



DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre maite.eileke@gmail.com

eukazan eta Magisteritza ikasten egoan. Etxetik sano gertu dagoan jattetxe baten egiten eban behar uda haretan. Abuztuaren 29ko gauean, Laudion geratuta egoan lagunakaz. Ez zan agertu. Astebe-beranduago, boluntario batek gorpua topau eban etxetik hurreko pinudi baten lurperatuta.

Erantzun bako itaun asko

1999ko abuztuaren 29 haretan, lanetik urtendakoan, 23:30ak aldera, Laura etxera joan zan erropea aldatzera. Asmoa zan, gero kotxea hartu, Ugaoko tren geralekura kotxez joan eta han trena hartzea Laudiora joateko. Non desagertu zan Laura ez da jakin. Bere kotxea Ugaoko tren geraleku ondoan aparkauta agertu zan. Bersino batzuen arabera, Lau-



atxilotu ebezan. Izan be, euren kotxean manta bat topau eben, hainbat ulegaz, baina uleok ez ziran Laurarenak eta alibia eukien. Bagilean libre geratu ziran. Harrezkeroztik ez da atxilotetarik egin. 2003ko urri lehenengoaren 30ean, kasua artxibatu egin zan.

2006ko urtailean, familiak Clara Campoamor alkartera jo eban, kasua zabalduen saiatzeko.

Aurtengo maiatzean, urri lehenengoan 20 urte bete eta kasuak preskribidu egingo ebala ikusita, eta 20 urteotan DNA probak asko aurreratu diranez, Bilboko epaitegi batek, auzia barriro zabalduetea ebazti eban, erropetan probak egiteko DNA errastu bateren bila.

Oin kasuak, Laurari eta bere familiari justizia egin barik preskribidu dau. Clara Campoamor alkartearen presidentearen ustez ez da izan kasua bereziki gatxa dalako, ikerketea ez dalako sakon

eta zorrotz egin baino. Kotxea topau ebenean familiari emon eu-tsien eta handik denpora batera, familiako guztiak errastu bila ibili ostean, eroan eben kotxea aztertuteko. Ruizen arabera, gorpua topau eben eremua be ez zan zarratu eta jente piloa joan zan lekua ikusten. "Han zigarrokinen bat, oin errasturik edo beste zantzurik egon bazan, galdu egin zan betiko". Kotxea, eremua eta erropak, ez zirala behar bezala aztertu, ezta testigantzea ondo ikertu be dino Ruizek. "Gauzak ez badira zorrotz egiten, interesik ez badaukazu, atzenean hiltzaileak eta bortxatzaileak gura dabena egingo dabe. Hiltzailea nor dan ez da jakin, baina nik jarraituten dot pentsetan, hasieran uste genduana dala. Justiziak bizkarra emon deutso eraildako neska gazte bateri eta bere familiari" salatu dau.

ARRATIAKO IBAIERTZETATIK X. MARTXA ZEANURI - BEDIA

IRAILAK 22, domeka

LUZEERA: 20 Km inguru
IRAUPENA: 4 ordu
ZAILTASUNA: Erreza

URTEERA: Zeanuriko plazatik
8:45etan

- Zeanurira joateko autobusa egongo da
- 8:00etan Bediatik herriz-herri Zeanurira (Dimatik ere)
- Amaitzean, luntxa eta ostean (14:00etan) Bediatik herriz-herri buelta Zeanurira

Arratiako Udalen
Mankomunitateak antolatuta

MUGIKORTASUNARENEUROPAKOASTEAN
2019KO IRAILAK 16-22



Arratia
"Bilatu Guziz"



Informazio gehiago 665 725 410 telefonoan
Ez da apuntatu behar

Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak.

Agirre lehendakaria, 4, Elexalde 10, Igorre
94 631 56 57/ 607 632 916 · arratia@aek.eus

Dirulaguntzak

Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.

Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan



EUSKARA - IKASTAROAK

MENDI LASTERKETEAK

Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketeak hiru egunetako jaia egingo dau Zeanurin

Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketea domekan eta Kilometro Bertikala barikuan izango diran arren, motorrak berotuten egunean, hilak 26, hasiko dira mendi lasterketazaleak Igorren pelikula eta berbaldi batez.

Erredakzioa

Berbaldi horretara doazenen artean, datorren urterako dortsal bat zozketatuko da.

Bariku eta zapatuan, lasterketak egongo dira, besteak beste; barikuan, Kilometro Bertikala eta zapatuan, Umeen Lasterketea, hain zuzen be. Baina egun handia domekea izango da. Astegoienean, lasterketez gainera, ekintza piloa egongo da Zeanurin: puzgarriak, denda espezializaduetako postuak eta abar.

Domekako bazkarirako txartela erosteko aukerea egongo da, 8 euroko prezioan eta astegoienean zehar, talogunea eta janariak saltzean dituan furgonetea egongo dira Zeanurin, herriko tabernez gainera, bazkari eta afariak emateko.

Mendi lasterkariak

Gorbeia Suzien Ternua, Euskal Herriko mendi lasterketarik osoenetakoa da, Zegama, Ehun Millak, Hiru Handiak edo Kilimon mendi lasterketaz batera. Hori dala-eta urtero, lasterkari ezagunak etorten dira Zeanurin lehiatzera. Aurten, Salomon taldeko Eli Gordonek eta La Sportiva taldeko Pere Rullanek, besteak beste, konfirmatu dabe euren partaidetzea.

Eli Gordon lasterketari kataluniarrak, Kataluniako distantzia erdiko lasterketa guztiak irabazi ebazan 2015, 2016 eta 2017an. 2017an, Espainiako txapelduna izan zan; bosgarrena, Europako Txapelketan eta Motblanc-eko OCCa irabazi eban. Lesino batzuen ostean, aurten be gogor hasi da, maila ona erakutsiz.

Pere Rullan Mallorcako lasterkariak be hartuko dau parte Gorbeia Suzien Ternuan. 2010ean hasi zan mendiko lasterketak irabazten baina 2015ean egin zan ezaguna. Izan be, urte horretan, besteak beste, Espainiako Mendi Lasterketetako txapelduna izan zan, hirugarren egin eban Zegama-Aizkorri lasterketan eta Kilometro Bertikaleko Espainiako Kopako txapeldunordea izan zan.

Azten egunotan beste izen handi bi be konfirmatu dauz Suzien Mendi Klubak Yngvild Kaspersen norvegiarra eta Aritz Egea.

Kaspersen 2016ko Zegama-Aizkorri lasterketako irabazlea da eta Egeak edizino guztietan egin dau galapan Gorbeian, "korrikalari guztien artean, badago guretzako berezia dan korrikalaria. Salomon taldeko, azken urteko garailea, Europako txapelduna" dinoe antolatzailleak. Eurakaz batera beste izen ezagun batzuk be egongo dira; Antonio Alcalde, Ismail Razga, Beñat Katarain, Maria Zorroza, Naia Quincoces, Asier Larruzeta, Laida Elizegi, Maite Etxezarreta, Mireia Pons, Teresa Moyano, Mikel Benunza, Iñigo Lariz, Jordi Gamito eta Javi Dominguez, esate baterako.

Egitaraua

Urri lehenengoak 26, eguna
19:00etan, Igorreko Kultur Etxean, *Tor* pelikulea eta ondoren Silvia Triguerosen berbaldia.

Urri lehenengoak 27, barikua

13:00etatik **14:30**era, Gorbeia Suzien Kilometro Bertikalerako dortsalen banaketea frontoian;

15:00etan, Gorbeia Suzien Kilometro Bertikaleko urtekerea; **18:00**etatik **20:00**etara, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketearen dortsal banaketea; **20:00**etan, Gorbeia Suzien Kilometro Bertikalaren sari banaketea.

Urri lehenengoak 28, zapatua

12:00etan, Umeen Lasterketako urtekerea. (Izen emotea **11:00**etan); **13:00**etan, herri kirolak; **17:00**etatik **20:00**etara, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketearen dortsal banaketea; **18:00**etan, *Briefinga*; **19:00**etan, Tio Teronen Semeak taldearen jantza ikuskizuna.

Urri lehenengoak 29, domekea

07:00etatik **08:30**era, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketearen dortsal banaketea; **08:30**ean, material ikuskapena; **08:45**ean, partaideak urtekeran; **08:45**ean, lasterkarien aurkezpena; **09:00**etan, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketako urtekerea; **13:30**ean, bazkaria; **14:00**etan, sari banaketea.

**FUTBOLA**

Hasteko prest

Erredakzioa

Arratia andrazkoen A taldeak hilaren 15ean jokatu eban ligako lehen partidua Igorreko Urbieta zelaiaren aurkera de Vitoriaren kontra. Arratiak 2-1 irabazi eban partidua. Gogoratu Arratiak Lehenengo Nazional Mailara igoera lortu ebala aurreko denporaldian Euskal Ligan bigarren egin eta gero. Arratiarrentzat ez da barria maila hau 16/17 denporaldian be jokatu eben-eta maila horretan. Datorren partidua hilaren 22an, 12:30ean, jokatu dabe etetik kanpo Berriozar taldearen kontra.

Nagusien beste talde guztiak 21, 22ko astegoienean hasiko dabe ligea. Arratia B andrazkoen taldeak Orduñaren kontra jokatu dau Igorren 22an 18:30ean. Arratia A gizezkoen taldeak be Igorren jokatu dau Ugeraga Aren kontra 21ean 17:15ean eta B taldeak Ezkurdi Bren kontra jokatu dau etetik kanpo 22an 17:00etan. LemoaHarrobik 21ean jokatu dau, zapatua, Ugao taldearen kontra etetik kanpo 18:00etan.

TAEKWONDOA

Cintado hirugarren 21 urte azpiko Europako Txapelketan

Erredakzioa

Jon Andoni Cintado Artetxe zerberioztarrak brontzeko domina lortu eban, urri lehenengoaren 5etik 8ra arte, Helsingborg-en (Suedia) jokaturako Europako Taekwondo Txapelketan, 21 urte azpiko eta 74 kilo baino gutxiagoko kategorian.

Cintadok, martian, Espainiako Txapelketea irabazi eban.

**Andoni Cintado.****TXIRRINDULARITZEA**

Murias taldeko Mikel Iturriak Vueltako 11. etapea irabazi eban

Erredakzioa

Espainiako Vuelta Euskal Herrian sartu zan egunean, Arratia Ziklista Elkarteak sortutako Murias taldeko Mikel Iturria urnietarrak irabazi eban etapea Urdazubin, urri lehenengoaren 5ean. Helmugara 25 kilometro falta ziranean igesi egin eban eta inork ezin izan eban harapatu. Honegaz Murias taldeak Espainiako Vueltan irabazten dauan bigarren etapea izan da, igaz Oscar Rodriguezek be, etapa bat irabazi eban-eta.

Vuelta Arratiatik

Hurrengo egunean, urri lehenengoaren 6an, Arratiako txirrindulariek, Vuelta zuzenean eta bertatik bertara ikusteko aukerea izan eban; Arratiako hainbat herritatik pasatu zan eta: Dima, Igorre, Lemoa eta Bediatik, hain zuzen be.

Hamabigarren etapa hau, Nafarroako zirkuituan hasi eta Bilbon amaitu zan, 171 kilometroren ostean. Phillipe Gilbertek irabazi eban, bigarren Alex Aranburuk egin eban eta hirugarrena Murias taldeko Fernando Barcelo izan zan.



MENDIA

Hiru Gurutzeak, urri lehenengoaren 27an



Erredakzinoa

Urte bakoitietan, Galdakaoko Ganguren Mendi Taldeak, Hiru Gurutzetako Mendi Ibilaldia antolatzen dau. Distantzia luzeko, larogei kilometroko ibilaldi gogor hau, Gorbeia, Saibigain eta Lemoatxako tontorretatik pasetan da. Mendi horreetako tontorretan kurutzetana bana dago eta horregaitik hartzen dau martxeak Hiru Gurutzetako izena. Aurtengoa, hamaigarren edizinoa izango da.

Partaideak hilaren 27an 23:45ean, abiatuko dira Galdakaotik. Gehienez 20 ordu

daukiez 80 kilometroak egiteko. Ibilbidea, Bedia, Lemoa, Igorre, Zeberio, Areatza, Zeanuri eta Dimatik pasetan da, Galdakaon amaituteko. Punturik altuena Gorbeia tontorra da (1481 m.).

Izen emotea

Izena hilaren 24a baino lehen emon daiteke zirkuitua.com Euskal Mendizale Federazioaren webgunean. Prezioa, federauta dagozantzeko 27 eurokoa da eta federauta ez dagozantzeko 37 eurokoa. Hilaren 24tik aurrera, Gangurenen egoitzan emon daiteke izena, 5 euro gehiago ordainduta.

Banoalako jenero guztia merketuta
%20, %30 eta %50

Galanta lentzeria
Agirre Lehendakaria 23 · Igorre
94 631 90 08

IBILBIDEA

PR-BI 56 Lemoatxa 1937 ibilbidea ezetuteko erronka hilaren 28 eta 29an

Urri lehenengoaren 28tik 29ra, 24 orduz, Lemoatxa 1937 PR-BI 56 ibilbidean ibiltariak egoteko erronka antolatu dabe Lemoako Udalak eta Ganzabal Mendi Taldeak.



Erredakzinoa

Maiatzaren 12an aurkeztu eban Lemoako Udalak aurten homo-

logautako ibilbidea eta ahalik eta jente gehienak ezetuteko 24 orduko erronka antolatu dau. Idea ez da partaideak 24 orduz ibiltea, 24 orduz bidea egiten ibiltariak egon daitezela baino. Horretarako, norbanakoak edo taldeak, orduo urtengo dira Gudarien parketik ibilbidea egiteko.

Ibilbideak 8,3 kilometro ditu eta zirkularra da, eta hiru bat ordutan egiten da. Gudarien parkean hasi eta amaituten da ibilbidea, 1937ko bagilean bataila latzak gertatu ziran lekuetatik pasauta. Ibilbidean "panel informatiboak dagoz eta bertan, bataila honeen eszenalekua errekerperetako Aranzadi egindako beharren barri emoten da, topautako gudarien gorpuzkinen kokapena eta abar" azaldu deutso BEGITU

Mikel Garcia Lemoako Gizarte-kintza Teknikariak.

Erronkan parte hartzeako izena garteria@lemoa.net helbidera idatzita edo 94 631 30 05 telefonoan emon daiteke.

Herritarrai Historia hurreratzin

Urteak daroaz Lemoan memoria historikoak ildo estrategikoa izaten. Urteotan, herritar asko hurreratu dira Lemoatxara lubakiak eta bertan egindako beharra ikusi guran. Horregaitik homologau zan bidea.

Interes handiko ibilbidea da, eta ez bakarrik memoria historikoari jagokonean daukan baliogaitik. Aisialdirako aukera moduan, jente askok erabiliko dauala uste dau Garciak. "Jenteak eukiko dau bide bat ingurutik ariketa fisikoa eta turismo aktiboa egiteko".

MENDI MARTXEA

Areatzako Mendi Martxako ibilbide laburra Bikotzganen hasiko da

Erredakzinoa

Aurreko urteetan moduan, ibilbide bi egongo dira aukeran. Laburrak 19,5 kilometro ditu eta 800 metroko desnibela eta luzeak 26,5 kilometro eta 1.500 metroko desnibela.

Martxa laburrean parte hartzen dabenak, antolakuntzak Areatzan hartu eta autobusez eroango ditu Bikotzganera, bertatik hasiko dabe ibilbidea-eta. Ibilbidea hauxe izango da: Bikotzganen, Mendigana, Hirumugarrieta, Pagomakurre, Areatzako neberoa, Potxoleta, Arraba, Karkabitxueta, Elorribi, Launtzin, Karpo eta Areatza. Ibilbide luzea egiten dabenak barriz, Areatzatik urten, eta Atxeko, Atxabala, Martxondi bekoa, Upo eta Asteitxetik pasauko dira, gero Mendigana, ibilbide laburra egiten dabenak bat egin eta falta dan zatia bide beretik egiteko. Urtekerea goizeko 08:00retan izango da eta amaitutakoan, parrillada eta opariak egongo dira partaideentzat.

Izen emotea

Izena hilaren 19ra arte emon daiteke areatzakomartxa.blogspot.com webgunean edo egunean bertan, herriko plazan 07:15etik aurrera. Prezioa 8 eurokoa da alde zuretik

izena emon ezker, eta 12 eurokoa egunean bertan.

Areatzako Udalak, AKKBk, Lami-

no Kirol Klubak eta Frakazuri Gazte Asanbladeak antolatu dabe mendi martxea.

AREATZAKO MENDI MARTXA
2019, irailak 20-21, irailaren 20-21

Martxaren hasiera 8:00retan.
Comienzo de la marcha 8:00.

Amalera "Parrillada" eta oparia.
Al final "Parrillada" y regalo.

Partaide guztientzat OPARI BAT egongo da HORRETAN GAIN, AMAIERAKO ZORRE TAN sartuko dira.
Todos los participantes tendrán UN REGALO y además, entrarán en el SORTEO FINAL.

IRAILAK 19 baino lehen gure webgunean eta 8€ sartuz
Antes del 19 de septiembre en nuestra web y abonando 8€
- BIK 2025.0025.0025.0025.0025

Egun berean: Irteera puntuatua, 7:15etik aurrera, 12€
El mismo día: en el punto de salida a partir de las 7:15 12€

IKASTAROAK

Boxeo ikastaroa Areatzan

Hipopresiboak, Gimnasia, Pilates, Yoga, Zumba... ariketa fisikoan oinarritzen diran ikastaroak daukie arraskatarik handiena Arratian eta, igazko moduan, horreexek osotuten dabe udalak 2019-2020 ikasturterako egin daben eskaintzearen gehiena.

Erredakzioa

BEGITUREN aurreko zenbakian, Arreak, Bediak, Dimak eta Lemoak eskaintzen dituen ikastaroen barri emon genduan. Hona, Arantzazun, Areatzan, Igorren, Zeanurin eta Zeberion eskaintzen diranak dakarguz. Izena emoteko epea hilaren amaierara arte zabalik dago herri gehienetan.

Arantzazu

Hiru gunetan emongo dira Arantzazuk ikasturte honetarako egin dauan eskaintza zabalik osotuten daben ikastaroak. Kultur Gunean, *Eskulanak*, *Yoga*, *Umeentzako robotika*, *Pilates* eta *Sukaldaritza* ikasi ahal izango dira. Frontoiko lokalean barriz, *Mantenimentuko gimnasia*, *Zumba*, *Zumba txiki* eta *Areto jantzak* praktikau ahal izango dira eta Gimnasioan, *Entrenamentu funtzionala* eta *Spinning*. Eguaztinetan, 19:00etatik 20:30era, monitoreare egongo da.

Izena urri lehenengoaren 26a baino lehen emon behar da udaletxean. Ikastaroak urri bigarrenean hasiko dira eta maiatzean amaituko dira.

Areatza

Igazko ikastaroerz gainera, *Boxeo*

eta *Ingeles mintzapraktika* ikastaroak be eskainiko ditu Areatzako Udalak. *Zumba*, *Zumba txiki* 12 eta 16 urte bitartekoentzat, *Gimnasia*, *Eskulanak*, *Crossfit*, *Pilates*, *Euskal jantzak*, *Yoga* eta *GAP* ikastaroak osotuten dabe eskaintzea. Izen emotea zabalik dago hilaren 25era arte eta eskolak urri bigarrenean hasiko dira.

Ikastaroak aurrera aterateko gitxienez 10 personako taldeak osotu beharko dira. Prezioai jago kienean, *Euskal jantzak* ikastaroa debaldekoa da, *Yogak* 80 euroko prezioa dauka eta gainontzeak 110 eurokoa. *Ingeles mintzapraktika* eta *Boxeo* ikastaroetan prezioa ikasle kopuruaren arabera ikasle kopuruaren arabera ikastaro barriak eskainiko ditue.

Igorre

Igorrek abendura arteko ikastaroen barri emon dau. Lehenengo hiruhilabeteko honetan, *Yoga*, *Txi-kung*, *Ariketa hipopresiboak*, *Irakurketa tailerra*, ume eta gazteentzako *Zirku* tailerrak eta Ines Medinaren *Plastikaren bitartez autoestimua* landuteko ikastaroak egin ahal izango dira. Izena Kultur Etxean emon behar da hilaren 27ra arte.

Kirol arloko ikastaroai jagokie-

nean, *Spinning*, *Areto jantzak*, *Pilates*, *Zumba*, *Zumba txiki*, *GAP*, *Gimnasia erritmikoa*, *3. adineko gimnasia*, *Giharketa*, eta *Igeriketa* dira 2019-2020 ikasturtekoak.

Gu Be Bai Runners andrazkoen galapan egiteko Igorreko taldeak be hasi dau ikasturtea, baina ikasturte osoan zehar hasi daiteke bertan galapan gura izan ezkerro.

Zeanuri

Aurten be, eskaintza zabalik egin dau Zeanuriko Udalak, edade guztietan ariketa fisikoak bultzatuz guran eta arteari lotutako ikastaroak be eskainiz. *Pilates*, *Zumba*, *Txi-kung*, *Gimnasia*, *Hipopresiboak*, *Umeen dantza*, *Pintura*, *Josten*, *Eskulanak*, *Entrenamentu funtzionala*, eta *Adimen suspertaketa* dira ikastaroak.

Bertan parte hartzeako izena udaletxean emon behar da urri lehenengoaren 20a baino lehen. *Pilates*, *Zumba* eta *Entrenamentu funtzionala* urri lehenengoaren 30ean hasiko dira. *Gimnasiako* eskolak urri lehenengoaren 4tik urri bigarrenaren 16ra izango dira eta urtailaren 7tik aurrera. *Edadeko gimnasia* urri lehenengoaren 9an hasi zan.

Zeberio

Zeberioko Udalak ariketa fisikoaren aldeko apustua egin dau aurten. Izan be, helduentzat *Gorputz heziketa*, *Pilates* eta *Hipopresiboak* ikastaroak ipiniko dira abian urri bigarrenaren 2an. Ikastaroak eskola zaharrean izango dira astelehen eta eguaztinetan. Izena emoteko epea zabalik dago.

Hilaren 27ra arte be, eskatu daitezke Bizkaiko euskaltegietan euskera ikasteagaitik udal diru laguntzak. Informazio gehiagorako Udal Euskera Zerbitzura jo daitezke barikuetan.

JAIK

San Migel ermiten inguruetan jaiak ospatuko ditue hainbat auzunetan

Erredakzioa

Hilaren 29an da San Migel eguna eta Arratiako hainbat auzunetan dagoz izenpe horretako ermitak; Alzustan (Zeanuri), Artean, Garben (Igorre), Jauregi-Yeurin (Bedia) eta Uriben (Zeanuri), hain zuzen be. Auzune batzuetan, aste goien osoa hartzean dauan jai egitaraua prestatzen dabe; beste batzuetan, meza ostean, ermitearen inguruan batzean dira auzokoak txistuaren soinuk jai giroa ipinten daben bitartean. Izan be, Artean, berbarako, eguna mezea eta barauskarriagaz ospatutako ohiturea dago; Uriben barriz, hiru egunetako egitaraua prestatu dabe.

Alzustan aurten, barauskaria San Migel egunean bertan egingo daben arren, hurrengo bariku-zapaturako prestatu dabe jai egitaraua. Igorren be holan egingo dabe; zapatuan, hilak 28, mezea 12:30ean eta barauskarria 13:30ean egingo dira, eta domekan 17:00etan, Briska Txapelketea izango da protagonistea.

Jauregi-Yeuri (Bedia)

Urri lehenengoak 28, zapatua 12:00etan, jaien hasikerea eta pintxo potea.

13:00etan, Igel Txapelketea.

15:00etan, auzo bazkaria.

17:00etan, Mus eta Briska Txapelketea.

17:30etik **20:00**etara, jolasak.

21:30ean, txixi-burruntzia, txokolatea eta sari banaketea.

22:00etatik **01:00**etara, Bingo

eta jantzaldia.

Urri lehenengoak 29, domekea 13:30ean, VI. Pintxo Lehiaketea. Aurkeztutako pintxo mota bakotzeko 6 pintxo prestatu behar dira gitxienez.

Uribe (Zeanuri)

Urri lehenengoak 21, zapatua 14:00etan, Auzo Bazkaria. Arrastian, musikea, "Zapora" kanporaketea, eta Briska eta Mus Txapelketea.

Urri lehenengoak 22, domekea 10:30ean, bizikleta igoerea plaza-tik Urkisteraino.

12:00etan, mezea eta gero barauskarria eta herriko txistulariak.

Urri lehenengoak 23, astelehena 12:00etan, arimen aldeko mezea. Arrastian, urdaia eta txokolatea eta "Zapora" finala.

Alzustan (Zeanuri)

Urri lehenengoak 29, domekea 12:00etan, barauskarria.

Urri bigarrenak 4, barikua 18:30ean, Mus Txapelketerako izen emotea.

19:00etan, Mus Txapelketea.

Urri bigarrenak 5, zapatua 12:00etan, mezea eta barauskarria.

14:00etan, auzo bazkaria.

17:00etan, Briska Txapelketea eta Bola Jokoa.

19:00etan, Ein GO taldeagaz jantzaldia eta txorizoa eta urdaia bertaraturakoentzat.

Arratia
Ubide eta Zeberioko
euskera
eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be

Hamabostero
begitu zeure etxean

Etxean jasoko duzuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko duzu.

Goagi eta helbide honetara bidali:
Zertu Kultur Elkartea,
Berrito Plaza 21, 40112 Artea

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu

DIMETAL

Eleventh Plague talde bizkaitarrak zabalduko dauz Dimetaleko kontzertuak

Barikuan, hilak 27, Abaroa Aretoko Koba eszenalekuan, Eleventh Plague, Uckaia, Elbereth, Knives eta Balmog taldeak joko dabe. Hurrengo egunean beste 18 taldek joko dabe lau eszenalekutan.



Erredakzioa

Jaialdia hasteko ardura Eleventh Plague-k (Deathcore/Slam) eta Uckaia arratiarrak (Hardcore melodikoa) izango dabe. Elbereth (Thrash metala) talde legazpiarraren, Knives bizkaitarren (Crust/Rock'n Death) eta Galiziatik datozen Balmog-en (Black/Death metala) txandea izango da gero. Guztiak Koba eszenalekuan joko dabe, 20:30etik eta 04:00etara bitartean, 35 eta 60 minutu arteko emonaldietan.

Hurrengo egunean, lau eszenalekutan 18 taldek joko dabe. Eszenaleku bi, Lemmy eta Doro izentutakoak, karpa baten barruan egongo dira. Karpea frontoiaren ondoan egongo da. Bertara sartu ahal izateko, sarre-tiketa aurkeztu behar da eskumuturrekoa hartzeako egongo dan Informazio Bulegoan.

Kontzertuak etenbarik txan-

datuko dira eszenaleku bi honeetan 18:00ak eta 04:30 bitartean. Karparen barruan "hiru barra, ogitartekoetarako eremu bat eta merchandising-erako gune bat" egongo dirala azaldu dabe Dimetaleroak Kultur Elkar-tekoak.

Beste eszenaleku biak Mari eta Koba izentatu ditue. Mari frontoi txikian egongo da eta Koba, Abaroa Aretoan. Hor izango diran kontzertuak doban izango dira.

Lemmy eta Doro

Ordaindu beharreko eremu eta eszenaleku bietan, Hex bilbotarrak (Darkened Death/Domm metala), Legen Beltza azpeitiarrak (Thrash metala), Salamankatik datorren El Altar del Holocausto (Post metal Doom instrumentala), Asturiaseko Soldier (Thrash metala) eta Rise to Fall bizkaitarrak (Death metala) ikusteko aukerea izango dabe

bertaratutakoak.

21:30ean eta 23:00etan kar-teleko talde ospetsuenak joko dabe; hau da, Koma nafatarrak eta "alemaniar Thrash-aren kon-daira diran Destruction" taldeak, besteak beste. Bonfire (Hard rock) talde alemaniarren txandea izango da gero eta ondoren, Balear Irletatik etorritako Trallery-k jardungo dau bere Thrash metalagaz. Jarraian Childrain gasteiztarrak (Metal melodikoa), euren hamar-garren urteurrena ospatuten. Atze-nik, Insaniam (Black/Death meta-la) Albaceteko bandeak emongo deutso amaierera gauari.

Egitaraua

Urri lehenengoak 27, barikua

18:00etan, metal pelotea frontoi txikian.

20:30etik 21:05era, Eleventh Plague, Koba eszenalekuan.

21:40tik 22:15era, Uckaia, Koban.

23:00etatik 23:40ra, Elbereth, Koban.

00:15etik 01:15era, Knives, Koban.

02:00etatik 03:00etara, Balmog, Koban.

02:15etik 05:00etara, DJ Metal-head, Koban.

Urri lehenengoak 28, zapatua

10:00etatik 18:00etara, azokea plazan.

11:00etatik 13:00etara, solasaldia Koban eta umeentzako jolas birtualak plazan.

13:00etatik 13:30era, metal bertsoak.

13:30etik 14:00etara, herri metal kirolak.

Mari eszenalekuan.

21:30etik 23:00etara, Koma, Doron.

21:45etik 22:30era, The Broken Horizon, Koban.

22:30etik 23:15era, Strikeback, Marin.

23:00etatik, 00:30era, Destruction, Lemmyn.

23:15etik, 00:00etara, Boneflower, Koban.

00:00etatik 00:45era, Orion Child, Marin.

00:30etik 01:30era, Bonfire, Doron.

00:45etik 01:30era, Misanthropy, Koban.

01:30etik 02:15era, Fear Crowd, Marin.

01:30etik 02:30era, Trallery, Lemmyn.

02:15etik 05:00etara, DJ Metal-head, Koban.

02:30etik 03:30era, Childrain, Doron.

03:30etik 04:30era, Insaniam, Lemmyn.

14:30etik 16:30era, metal bazkaria frontoi handian.

16:30etik 17:00etara, metal olinpiadak.

18:00etatik 18:30era, Hex, Lemmy eszenalekuan.

18:30etik 19:00etara, Legen Beltza, Doro eszenalekuan.

19:00etatik 19:45era, El Altar del Holocausto, Lemmyn.

19:45etik 20:30era, Soldier, Doron.

20:30etik 21:30era, Rise to Fall, Lemmyn.

21:00etatik 21:45era, Leyenda,



AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 17 ARANTZAZU

Hilaren 26ra arte, 2019-2020 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Udaletxean.

AREATZA

Parketxean, *Odonatoak uraren hegoak* erakusketea.

10:00etan, eskualdeko jubiladu eta pensionisten mendi martxea Upomakatzara Uparan Areatzako Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta. Eleizatik.

Hilaren 19ra arte, Mendi Martxan izena emoteko epea zabalik www.aretzakomendimartxa.blogspot.com webgunean.

Hilaren 25era arte, 2019-2020 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Udaletxean.

ARTEA

Hilaren 20ra arte, 2019-2020 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Udaletxean.

"Herri txiki, infernu handi" saioan agertzeko boluntarioak izena emon udaletxera deituta.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 20ra arte, Udalak eraturako ikastaroetan eta Umeen

Irakurle Klubean izen emotea liburutegian. Urri bigarrenaren 12an izango dan Campillo Bodegara urtekerarako izen emotea.

16:30etik 19:30era, hilaren 27ra arte, urri bigarrenaren 26 eta 27an Zugarramurdira egingo dan astegoen urtekerarako izen emotea liburutegian.

IGORRE

Hilaren 27ra arte, 2019-2020 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Kultur Etxean.

LEMOA

Hilaren 28ra arte, Lemoan euskaraz saldu eta erosi kanpaina. Saltokietan euskeraz agurtu bonoen zozketan parte hartzeako.

ZEANURI

Uribeko sanmigeletako bazkarirako izena emoteko atzen eguna.

Hilaren 20ra arte, 2019-2020 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Udaletxean.

ZEBERIO

Zumba (18:20-19:15) eta *Karibeñoak* (17:30-18:20) ikastaroak urri bigarrenaren hasita martitzenetan. Emon izena 616 429 438 (18:00-20:00) telefonoan edo austarrrikulturataldea@gmail.com helbide elektronikoa. Austarri Korta Kultur Elkarteak antolatuta.

URRI LEHENENGOAK 18 ZEANURI

08:00retan, Gorbeia Jubilatu eta Pensionisten Alkarteak antolatuta, Hendaia eta Berara txangoa. 11:00etan, bisita gidatua: chateau Abbada-Hendaia; 12:30ean, herria eta hondartza; 14:30ean, bazkaria eta ondoren Bera herria ikusi.

URRI LEHENENGOAK 19 BEDIA

Bediako Jubiladu eta Pensionisten urtekerea. Bilboko Arriaga Antzokira bisita, bazkaria Maruri-Jataben eta Gorlizera.

ZEBERIO

Najerara txangoa. 09:00etan, Ermitabarrin; 09:05ean, plazan; 09:10ean, Arkulandan eta Santa Kurtzen; 09:15ean, Ugaon; 11:15ean, Najeran bisitaldi gidatua; 14:00etan, upategira bisita; 15:00etan, bazkaria; 19:30ean, urtekerea Zeberiorantz. Gure Indarra Jubilatu eta Pensionisten Elkarteak antolatuta.

URRI LEHENENGOAK 20 ARRATIA

Mendi ibilaldia. Zumeltza-Makaztui-Zeanuri. 09:30ean, Otxandiora doan autobusean. Izena emoteko; 94 673 62 62 telefonora deitu edo mezua bidali 627 408 827 telefonora. Arratiako Gurutze Gorriak antolatuta.

IGORRE

Inbiu Eguna. 19:00etan, Igorre kantari jubiladuenetik hasita.

LEMOA

17:00etan, jolas parkea.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

17:00etan, jolas parkea.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

18:00etatik 20:30era, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

18:30ean, Durundi Barri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzaz plazaz plaza Txoanetik hasita.

plazan. Amaitutakoan parriladea parte hartzaileentzat plazan.

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, iluntzeko ibilbidea Oketara. 12 kilometroko ibilbidea, 4-5 ordu. Izena emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

ARTEA

MerkArtea. 10:00etatik 15:00etara, MerkArtea, baserriko produktuen eta artisautza azokea, EuskOrleans Dixie Band, Uxue Alberdi eta Sebastian Lizaso bertsolariakaz poteoa; 12:00etan, giza probak probalekuan eta umeentzako puzgarriak eta artisautza tailerra; 13:00etan, motozerra erakustaldia; 18:00etan, Kantu Bat Gara taldeagaz abestu herritik zehar, Ustruke Gunetik hasita; 21:00etan, Korrontzi taldearen ikuskizuna plazan; 24:00etan, Gora Herria taldeagaz erronomia, plazan.

IGORRE

Inbiu Eguna. 11:00etan, "Euskeraz gara" hormairudi margoketea; 12:00etan, Ein GO taldeagaz kalejirea Olabarriko Aizea tabernatik hasita; 15:00etan, bazkaria Kultur Etxeko plazan; ostean, Ein GO taldeagaz kantaldia; 18:30ean, Jokaldi AMEren eskutik, bitartean txokolatea eta esakera zaharretan parte hartu dabenen artean zozketea.

LEMOA

09:30ean, Lemoa Txirindulari Elkarteak antolatuta, La Gandarara urtekerea (Kantabria). Arlonagusian.

10:30etik 13:00etara, Euskara Zerbitzuak antolatutako *Grafiti* ikastaroa.

20:30etik aurrera, Karabie Sarien gau galaktikoa Gaztetxean. 20 urte honeetako argazki eta bideoen emonaldia be egongo da.

Harriketarrak Gasteiz Asanbladeak antolatuta.

ZEANURI

San Migel jaiak Urriben. 14:00etan, Auzo Bazkaria. Arrastian, musika, "Zapora" kanporaketea, eta Briska eta Mus Txapelketak.

URRI LEHENENGOAK 22 BEDIA

Udalak antolatuta, Auto Bako Eguna. 10:30ean, Bediatik zehar ibilbidea bizikletan. Parte hartzeako kaskoa eroan behar da; 11:30ean, bide segurtasun zirkuitua; 13:00etan, parte hartzaile guztien artean bizikleta bat zozketatuko da.

LEMOA

07:30ean, Igorren eta 07:40ean Lemoan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, GR-38 Ardaoa eta arrainen ibilbidearen 8. etapea. Durango-Mendata.

ZEANURI

San Migel jaiak Urriben. 10:30ean, bizikleta igoera plazatik Urkisteraino; 12:00etan, mezea eta gero barauskarria eta herriko txistulariak.

URRI LEHENENGOAK 23 ZEANURI

San Migel jaiak Urriben. 12:00etan, arimen aldeko mezea; arrastian, urdaia eta txokolatea eta "Zapora" finala.

URRI LEHENENGOAK 25 BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalen eskutik liburutegian.

URRI LEHENENGOAK 26 ARTEA

19:00etan, Feminismoa saretzen, batzarra. Mataderoan.

BEDIA

17:00etan, belaunaldien arteko truke

programea Jandoniz Nagusien egoitzan.

IGORRE

19:00etan, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketako antolakuntzak antolatuta, *Tor* pelikulea eta Silvia Triguerosen berbaldia Lasarte Aretan.

URRI LEHENENGOAK 27 DIMA

Dimetal, Metal musikako jaialdia. Ikusi egitaraua 13. orrialdean.

LEMOA

17:00etan, skate parkea.

ZEANURI

Gorbeia Suzien Kilometro Bertikala. 13:00etatik 14:30era, Gorbeia Suzien Kilometro Bertikalerako dortsalen banaketea frontoian; 15:00etan, urtekerea; 18:00etatik 20:00etara, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketaren dortsal banaketea; 20:00etan, Gorbeia Suzien Kilometro Bertikalaren sari banaketea.

URRI LEHENENGOAK 28 ARANTZAZU

Arginatx Mendi Taldearen urtekerea PR-BI 56 Lemoatxa 1937 ibilbidea egiteko.

BEDIA

Jauregi-Yeuri auzoko jaiak. 12:00etan, jaien hasikerea eta pintxo potea; 13:00etan, Igel Txapelketea; 15:00etan, auzo bazkaria; 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketea; 17:30etik 20:00etara, jolasak; 21:30ean, txixi-burruntzia, txokolatea eta sari banaketea; 22:00etatik 01:00etara, Bingoa eta jantzialdia.

DIMA

Dimetal, Metal musikako jaialdia. Ikusi egitaraua 13. orrialdean.

IGORRE

San Migel jaiak Garben. 11:00etan, txupina; 12:30ean, mezea eta 13:30ean, barauskarria.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak eta Lemoako Udalak antolatuta, PR Lemoatxa 1937 Erronka. 24 orduz PRA martxan.

ZEANURI

11:00etan, Gorbeia Suzien Umeen Lasterketako izen emotea; 12:00etan, Umeen Lasterketako urtekerea; 13:00etan, herri kirolak; 17:00etatik 20:00etara, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketaren dortsal banaketea; 18:00etan, *Briefinga*, berbaldi tekniko; 19:00etan, Tio Teronen Semeak taldearen jantzia ikuskizuna.

URRI LEHENENGOAK 29 ARTEA

Mezea eta barauskarria San Migelen.

BEDIA

13:30ean, VI. Pintxo Lehiaketea. Aurkeztutako pintxo mota bakotzeko 6 pintxo prestatu behar dira gitxienez. Yeurin.

IGORRE

San Migel jaiak Garben. 16:30ean, izen emotea eta 17:00etan, Briska Txapelketea.

ZEANURI

Gorbeia Suzien Lasterketea. 07:00etatik 08:30era, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketaren dortsal banaketea; 08:30ean, material ikuskapena; 08:45ean, partaideak urtekeran; 08:45ean, korrikalarien aurkezpena; 09:00etan, Gorbeia Suzien Ternua Lasterketako urtekerea; 13:30ean, bazkaria; 14:00etan, sari banaketea.

IGORRE

Jaiak. 12:00etan, barauskarria Altzutan.

URRI LEHENENGOAK 30 ZEANURI

17:30ean, *Pilates*; 18:45ean, *Entrenamentu funtzionala* eta 20:00etan, *Zumba* ikastaroak hasiko dira.

ERMITEN IBILALDIA.

DIMA
2019

ibilbidea

HERRIO PLAZA
PEDADEA
SAN PEDRO Parroquia
ARTZUBI
MUNETXA
SAN MIGEL TXIKI
IRAURGI
OLAZABAL
ROKE Deuna
UNTZURDIN
AROSTEGIETA
SAN INAZIO
LAMINDAO
MAGDALENA P.
PETRALANDA
GOIKOGANA
SAN BLAS URRIKO
BIZKORRE
URZABALETAKO
KORTABARRIA
ZAMAKOLA
OLALDE
SAN FRESKU
GIBILTAR
JENTILZUBI
ABARO
BALZOLA
LONTZO DEUNA
BARGONDIA
SANTA MAÑE
SANTA APOLONIA
BARGAUN
EGIRAUN
ZUBERO
OBA GOIKOA
SAN ANTOLIN
SAN MARTIN
UGARITZ
ARTAU
BIZENTE Deuna
BIZKORRE
SANTA AGEDA
BIZKORRE
BITERIÑO
SAN MILLAN
SANTIAGO
SAN BALENTIN
HERRIO PLAZA



Noiz: Irailak 21, zapatua

Urteera ordua: goizeko 7etan

Nondik: Dimako herriko plazatik

Ibilbidearen luzera: 32 km

... amaieran luntxa

Oharra: Ibilbide osoa edo zati bat egitea norbere esku.

ANIMAU ZAITEZ ETA ERDU!

DANTZAN PLAZAZ PLAZA

LEMOA



IRAILAK 20
18:30
TXOANEN
PLAZA GORRIAN



URRI LEHENENGOAK 21 AREATZA

07:15ean, izen emotea; 08:00retan, Areatzako Mendi Martxaren urtekerea


Dimako ermiten ondotik eta inguruetatik ibilaldia

Urri lehenengoaren 21erako antolatu dau Dimako Udalak, Dimako 18 ermitatik pasetan dan ibilaldia. Guztira 32 kilometro dira, baina ibiltariak ibilbide osoa edo zati bat egiteko aukerea be badaukie. Urtekerrea, goizeko 07:00retan izango da herriko plazatik. Martxea amaitutakoan kopaua egongo da bertan parte hartu dabeneztat.

Ibilbidea igazko bera izango da eta hurrengo leku eta ermitetatik pasauko dira ibiltariak. Herriko plazatik urten eta, Piedadea, San Pedro parrokia, Artzubi, Munetxa, San Migel Txiki, Iraurgi, Olazabal, Roke Deuna, Untzurdin, Arostegieta, San Inazio, Lamindao, Magdalena, Petralanda, Goikogana, San Blas urriko, Elgabide, Urzabaleta, Kortabarra, Zamakola, Olalde, San Fresku, Gibiltar, Jentilzubi, Abaro, Baltzola, Lontzo Deuna, Bargondia, Santa Mañe, Santa Apolonia, Bargaun, Egiraun, Zubero, Oba goikoa, San Antolin, San Martin, Ugariotz, Artaun, Bizente Deuna, Bikarregi, Santa Ageda, Bizkorna, Biteriño, San Millan, Santiago eta San Balentinetik pasau ondoren, herriko plazan amaituko dabe ibilbidea.

AKI MI KO

K a i l o R e n



IRAGARKI LABURRAK

SALDU

AIREA GIROTZEKO GAILUA SALGAI

Airea girotzeko gailua saltzean dot, 800 euro, barri-barria. Egurrezko sehaska opari. Interesdunak 620 276 471 telefonora deitu.

TEILAK SALGAI

Baseri konponketa baten osteko kurbadun teila erdibarriak saltzean dira. Prezioa 0,70 euro negoziagarriak. Telefonoa: 630 363 971.

DANERIK

ETXE BILA

Uritik alde egin guran Arratiako herri baten alokairu bila dagoan Bilboko bikote gaztea gara. 685 787 387. Amaia eta Eneko.

LONJEA ALOKATZEN DA

Lonjea alokairuan Areatzan. 35 m² eta komuna. Egokia negozioa edo bulegoa jartzeko. Telefonoa 634 400 920.

IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, 4. DBHko

Fisika eta Matematikako klase partikularrak emateko persona bat behar da. Telefonoa: 658 726 587.

LANGILE BILA

Axular Kultur Elkartearen astegoienetarako behargin euskaldun bila gabiz.

Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu.

ETXEEN GARBIKUZIA

Etxeak garbitzeko nonor behar badozu, ez eizu dudarik egin. Deitu 632 426 687 telefonora.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

BEGITUKO kamiseta bana.

Maite Artabe (Areatza)
Naia Rodriguez (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
SEM
e-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERRITZUA
609421222
IGORRE

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

begitu
anaitza urteko urteko

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietza, s/n 48530 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 600 482 530 • 600 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-49-54

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Gara, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Pinturas Arantia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

NAIARA Horts Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

“Begi bizian, begi luzean, begirada sakonean,
begirada osoan begituten beti” Gontzal Mendibil

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net



www.alkizabal.net



Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14 eta 649 979 112

begitu@topagunea.com

begitu

arratia ubide zeberio

inbiu EGUNA

IRAILAK 20
barikua

19:00 Igorre kantari
Jubilatuetatik hasita

IRAILAK 21
zapatua

11:00 "Euskeraz gara" Horma irudi
margoketa *Kultur etxeko atean*

12:00 EinGOgaz kalejira
Aizea tabernan hasita

15:00 Bazkaria *Kultur etxeko plazan*

MENUA:

Helduak 14€: Marmitakoa, solomoa
piperrakaz, tarta
izozkiegaz, ardaue, kafea...

12 urtera bitartekoak 9€:
Makarroiak, solomoa patatakaz, izozkia.

Ostean EinGo taldeagaz kantaldia

18:30 Jokaldi *AMEren eskutik*

Bitartean Txokolatea eta esakeren
zozketa



Eserrak bereziki
Igorreko Jubilatuen
Elkarteari artero egiten
duzuen lan guztiagatik.